El umbral · Atalasea

MAPAMUNDISTAS empezó en el año 2007 en Pamplona y desde entonces, cada año, vuelve después del verano con una propuesta de exposiciones, proyecciones y talleres que se alimentan de un tema de reflexión y de numerosos encuentros. En 2023, el concepto que tendió el hilo entre los distintos trabajos fue *El umbral*.

Con esta publicación, queremos echar la mirada hacia atrás, a los umbrales que se atravesaron en las siete semanas que duró el programa. Con esta publicación, también se busca levantar el acta de algunas de las reflexiones que generaron los trabajos expuestos y recopilar una memoria visual de lo vivido. Es un regalo que llega a tus manos y que esperamos, encuentre un lugar en tu biblioteca o en tu archivo de recuerdos.

MAPAMUNDITARRAK 2007an hasi zen Iruñean, eta orduz geroztik urtero itzultzen da udaren ondoren erakusketa, emanaldi eta lantegien proposamen batekin, zeina hausnarketa-gai batez eta topaketa ugariz elikatzen baita. 2023an lanen arteko haria *Atalasea* kontzeptua izan zen.

Argitalpen honen bidez atzera begiratu nahi dugu, programak iraun zuen zazpi asteetan igaro ziren atalaseeetara. Argitalpen honen bidez, era berean, lanek sortu zituzten hausnarketa batzuen akta jaso nahi da eta bizitakoaren ikusmen-memoria bildu. Zure eskuetara iritsi den oparia da, eta espero dugu zure liburutegian edo oroimenen artxibategian toki bat edukitzea.

Sol y carbono

MAPAMUNDISTAS 2023 escogió como título y concepto *El umbral*, esa zona de transición entre el interior y el exterior donde acontecen cambios de luz. Así, la luz y la sombra protagonizaron algunos de los trabajos expuestos, tratando de que tomáramos conciencia de su incidencia en nuestra percepción del mundo.

Damaris Pan (Mallabia, Vizcaya, 1983) abrió MAPAMUNDISTAS 2023 con su exposición titulada ***Bero Sapa (Bochorno)*** en el campus de la UPNA en Pamplona. Para el vestíbulo del edificio El Sario, produjo una serie de pinturas al óleo sobre papel en la que retrató a unos personajes negros sobre un fondo naranja intenso. Sus monigotes aparecían con ojos como platos, fumando puros, comiendo helados o tomando el sol. Tiernos e inocentes, lucían una corporalidad desacomplejada y se entregaban al instante presente. Pan captó sus posturas con un gesto directo y ágil y usó los colores, el naranja asociado al sol abrasivo y el negro del carbón, como códigos visuales implacables. La serie es humorística pero no deja lugar a dudas: el calentamiento global y sus efectos devastadores constituyen el telón de fondo de nuestras acciones. Y si la pintora incluyó en el trabajo algún gato, una pareja de cuervos o un burro, es porque considera que en nuestra caída, nos llevaremos al resto de seres vivos.

Por su parte, en la exposición que presentó en el Batán de Villava, **Anna Dot** (Torelló, 1991) se preguntó cómo orientarse o leer sin usar la vista. En la obra que dio título a la exposición, *La parábola de los ciegos*, Dot se inspiró en la escena del cuadro de Pieter Brueghel el Viejo del año 1568. En el lienzo, unos ciegos caminan por el campo agarrados los unos a los otros, de manera que, cuando el primero de la fila cae en un agujero, parece que todos van a correr la misma suerte. Estos personajes recuerdan a los que pintó Damaris Pan, que igualmente se muestran despreocupados a pesar del peligro que se avecina. Dot trasladó los palos que llevan los ciegos al espacio expositivo y los ubicó en la misma posición que en el cuadro, flotando en el aire y dejando el hueco que habían ocupado los cuerpos. Junto con esta instalación, presentó la serie *Sin necesidad de luz*, compuesta por un conjunto de frases en cerámica escritas en Braille que colocó en las paredes de la sala. Las frases son extractos de la obra de teatro de Maurice Maeterlinck, "Los ciegos" (1890), en la que un grupo de invidentes se pierden en una isla y describen sus sensaciones. Frases como "Siento el alboroto de unas alas a mi alrededor" o "Me parece que se acerca alguien" revelan las extrañas presencias que habitan la oscuridad.

Aurélien Mauplot (Vincennes, Francia, 1983) también quiso invitar al público a sumergirse en las sombras con su instalación *Los mundos invisibles-Canto due*, en el Horno de la Ciudadela de Pamplona. Las personas que entraron en el edificio circular tuvieron que dejar atrás la luz del día. Una vez que los ojos se acostumbraban a la penumbra, descubrían una vela encendida colocada sobre un cairn, un túmulo compuesto por piedras situado en el centro de la sala. Como si se tratase de un teatro de sombras o de un cine primitivo, a través de un artilugio compuesto de diapositivas y fuentes de luz giratorias, se proyectaban en las paredes de piedra dibujos de rostros mitad animal mitad humano, reproducciones de retratos antropomórficos descubiertos en cuevas prehistóricas. A la vez, en las pantallas sujetas a la pared acontecía una video performance en torno a las *manos negativas* de la cueva de Gargas (Alto Pirineo francés). El contorno de esas manos que posaban abiertas sobre la roca era trazado mediante la pulverización de pigmentos de color. A muchas de estas huellas les faltaba alguna o varias falanges, sin que se haya encontrado una explicación para esta práctica y su significado. La acción que Mauplot grabó en video consistió en reproducir el gesto de las personas que pintaron su mano en la pared de la cueva hace treinta mil años, dejando inscrito un misterioso mensaje que ha llegado hasta nosotras. Algunas de las visitantes permanecieron un rato largo dentro del simulacro de caverna ideado por Mauplot, disfrutando de la penumbra y de la quietud, y escuchando la composición sonora que acompañaba los trazos de luz y sombra, hecha de viento y silencio entrecortado.

Para el cierre de MAPAMUNDISTAS 2023 se invitó a **Eulalia Valldosera** (Villafranca del Penedés, 1963), artista mística que trabaja la luz solar como materia. El 27 de octubre impartió una charla performática titulada *Acción Fotónica II* en el Museo de Navarra. A modo de introducción, definió la creación como "una intención que conlleva una vibración", "un movimiento hacia fuera y hacia dentro que genera luz y oscuridad". Valldosera dio voz a cada uno de los siete colores que componen el espectro de la luz y a continuación pasó a narrar cinco laminas en color que produjo usando su cuerpo como médium. La secuencia de dibujos que presentó tenía como objeto de estudio la Tierra como ser vivo. Nutriéndose de saberes ancestrales, fue leyendo los dibujos, narrando la transformación que está viviendo el planeta y recalcando nuestra pertenencia a ella. Su charla finalizó con una acción lumínica que puso el foco en el cuerpo como ente atravesado por la luz y el color.

Eguzkia eta karbonoa

2023ko MAPAMUNDITARRAK ekimenak izenburu eta kontzeptu gisa *Atalasea* aukeratu zuen, argi-aldaketak gertatzen diren barnealdearen eta kanpoaldearen arteko trantsizio-eremua. Hala, argia eta itzala izan ziren erakutsi ziren lan batzuen protagonistak, munduaz dugun pertzepzioan duten eraginaz jabetu gintezen saiatuz.

Damaris Panek (Mallabia, Bizkaia, 1983) ireki zuen 2023ko MAPAMUNDITARRAK *Bero Sapa* izeneko erakusketarekin, NUPen Iruñeko campusean. El Sario eraikineko atarirako olio-pintura batzuk egin zituen paper gainean, eta bertan pertsonaia beltz batzuk erretratatu zituen hondo laranja bizi baten gainean. Bere txorimaloak plater gisako begiekin agertzen ziren, puruak erretzen, izozkiak jaten edo eguzkia hartzen. Samurrak eta xaloak ziren, konplexurik gabeko gorpuzkera zuten eta orainaldian bizi ziren. Panek keinu zuzen eta arin batekin ezarri zituen jarrerak, eta koloreak, eguzki kiskalgarriari lotutako laranja eta ikatzaren beltza, kode bisual gupidagabe gisa erabili zituen. Saila umorezkoa da, baina ez dago zalantzarik: berotze globala eta haren ondorio suntsitzaileak dira gure ekintzen hondo-oihala. Eta margolariak katuren bat, bele bikote bat edo asto bat sartu bazuen lanean, gure erorialdian gainerako izaki bizidunak suntsituko ditugula uste duelako da.

Bestalde, Atarrabiako Pilategian aurkeztu zuen erakusketan, **Anna Dotek** (Torelló, 1991) ikusmena erabili gabe nola orientatu edo irakurri galdetu zion bere buruari. *Itsuen parabola*, erakusketari izenburua eman zion lanerako, Dot 1568. urteko Pieter Brueghel Zaharraren koadroan inspiratu zen. Mihisean, itsu batzuk zelai batean dabiltza elkarri helduta, eta, beraz, ilarako lehena zulo batean erortzen denean, badirudi denek zorte bera izanen dutela. Pertsonaia horiek Damaris Panek margotu zituenak gogora ekarriko dituzte: axolagabe agertzen dira, arrisku handia datorren arren. Dotek itsuek eramaten dituzten makilak erakusketa-eremura eraman zituen, eta koadroan zeuden leku berean kokatu zituen, airean flotatuz eta gorputzek bete zuten hutsunea utziz. Instalazio horrekin batera, *Argiaren beharrik gabe* aurkeztu zuen, Braillez idatzitako zeramikazko esaldiez osatua, eta gelaren hormetan jarri zituen. Esaldiak Maurice Maeterlincken "Itsuak" (1890) antzezlanaren laburpenak dira. Bertan, itsu talde bat uharte batean galdu eta bere sentsazioak deskribatzen dituzte. "Hego batzuen zalaparta sentitzen dut nire inguruan" edo "Norbait hurbiltzen ari dela uste dut" esaldiek iluntasunean bizi diren presentzia bitxiak erakusten dituzte.

Aurélien Mauplotek (Vincennes, Frantzia, 1983), halaber, *Mundu ikusezinak-Canto due* izeneko instalazioaren bidez jendea itzaletan murgiltzera gonbidatu nahi izan zuen, Iruñeko Ziudadelako Labean. Eraikin zirkularrean sartu zirenek eguneko argia atzean utzi behar izan zuten. Begiak ilunantzera ohitu ondoren, piztutako kandela bat aurkitzen zuten aretoaren erdian zegoen cairn baten gainean, harriz osatutako tumulu baten gainean. Itzal-antzerki bat edo zinema primitibo bat balitz bezala, diapositibaz eta argi-iturri birakariz osatutako tramankulu baten bidez, harrizko hormetan erdi gizakia erdi animalia ziren aurpegiak proiektatzen ziren, historiaurreko kobazuloetan aurkitutako erretratu antropomorfoen erreprodukzioak. Aldi berean, hormari lotutako hiru pantailetan performance bat gertatzen zen Gargas haitzuloko (Frantziako Goi Pirinioa) *esku negatiboen* inguruan. Arrokaren gainean irekita zeuden esku horien ingurua koloretako pigmentuak lainoztatuz marrazten zen. Aztarna horietako askori hatz bat edo batzuk falta zitzaizkien, eta praktika honetarako azalpenik eta esanahirik ez da aurkitu. Mauplotek bideoz grabatu zuen ekintza, duela hogeita hamar mila urte –guregana iritsi den mezu misteriotsu bat idatzita utziz– kobaren paretan eskua pintatu zuten pertsonen keinua erreproduzitzean datza. Bisitarietako batzuk luze egon ziren Mauplotek asmatutako leize-simulazioaren barruan, ilunantzaz eta gelditasunaz gozatuz, eta argiaren eta itzalaren trazuen soinu-konposizioa entzunez, haizez eta isil-etenez egindakoa.

2023ko MAPAMUNDITARRAK ixteko, **Eulalia Valldosera** (Villafranca del Penedés, 1963) gonbidatu zuten, eguzki-argia materia gisa lantzen duen artista mistikoa. Urriaren 27an *Ekintza fotonikoa II* hitzaldia eman zuen Nafarroako Museoan. Sarrera gisa, sorkuntza honela definitu zuen: "bibrazioa dakarren asmoa", "argia eta iluntasuna sortzen dituen kanporanzko eta barruranzko mugimendua". Valldoserak ahotsa eman zion argiaren espektroa osatzen duten zazpi koloreetako bakoitzari, eta, ondoren, bere gorputza medium gisa erabiliz, koloretako bost lamina kontatu zituen. Aurkeztu zuen marrazki-segidak izaki bizidun gisa aztertzen zuen Lurra. Antzinako jakintzez elikatuz, marrazkiak irakurtzen joan zen, planeta zer aldaketa bizitzen ari den kontatuz eta Lurraren parte garela azpimarratuz. Hitzaldiaren amaieran argi-ekintza bat egin zuen, eta fokua gorputzean jarri zuen, argiak eta koloreak zeharkatzen dituen izaki gisa.



Damaris Pan. *Bero Sapa (Bochorno).* Sario, UPNA, Pamplona.
Detalle del mural.

Damaris Pan. *Bero Sapa.* Sario, NUP, Iruña.
Horma-irudiaren xehetasuna.

Anna Dot. *La parábola de los ciegos*. Batán, Villava.
Paseo/ acción desde el Ultzama hasta el Arga. Exposición. Taller.

Anna Dot. *Itsuen parabola*. Pilategia, Atarrabia.
Ultzamatik Argarainoko ibilaldi/ekintza. Erakusketa. Lantegia.

Aurélien Mauplot, con la colaboración de Camille Mauplot.
Los mundos invisibles-Canto due. Horno, Ciudadela, Pamplona.
Presentación al aire libre. Detalles de la instalación in situ.
Los mundos invisibles-Canto due © Aurélien Mauplot, Pamplona, VEGAP, 2024.

Aurélien Mauplot, Camille Mauploten laguntzarekin.
Mundu ikusezinak-Canto due. Labea, Ziudadela, Iruña.
Aurkezpena atari zabalean. Instalazioaren xehetasunak in situ.
Mundu ikusezinak-Canto due © Aurélien Mauplot, Iruña, VEGAP, 2024.

Alberto Odériz. *Arqueología de un nacimiento.* Pabellón de Mixtos I, Ciudadela, Pamplona.
Detalles de proceso y de la exposición.

Alberto Odériz. *Jaiotza baten arkeologia.* Mistoen I. eraikina, Ziudadela, Iruña.
Prozesuaren eta erakusketaren xehetasunak.

Irene Zottola. Con el comisariado de **Natasha Christia**. *Icaro*. Pabellón de Mixtos I, Ciudadela, Pamplona. Detalles de la exposición.

Irene Zottola. Natasha Christia komisario izanik. *Ikaro*. Mistoen I. eraikina, Ziudadela, Iruña Erakusketaren xehetasunak.



Álvaro Caboalles y Ana Gándara. *Abismo*. Huarte
Intervención en el antiguo solar de la Fabrica Mina, la Fuente principal, el Molino de la presa Atondoa y las huertas.

Álvaro Caboalles eta Ana Gándara. *Amildegia*. Uharte
Esku-hartzeak Mina lantegiaren orube zaharrean, Iturri nagusian, Atondoa presaren Errotan eta baratzeetan.

abier Erkizia, con la participación de **Raúl Cantizano**. *O gemer.* Civivox Iturrama, Pamplona. Proyección, concierto y charla.

abier Erkizia, Raúl Cantizanoren parte hartzearekin. *O gemer.* Iturramako Civivoxa, Iruña. Emanaldia, kontzertua eta solasaldia.

Inés García. *Winterreise*. Civivox Iturrama, Pamplona. Proyección.

Inés García. *Winterreise*. Iturramako Civivoxa, Iruña. Zinema-emanaldia.

Chincheta Bruna. Ciudadela, Pamplona.
Talleres para niñas, niños y adolescentes.

La Chincheta Bruna. Ziudadela, Iruña.
Haur eta nerabeendako lantegiak.



Eulalia Valldosera. *Acción Fotónica II*. Museo de Navarra, Pamplona.
Detalles de la charla performativa. *Acción Fotónica II* © Eulalia Valldosera, Pamplona, VEGAP, 2024.

Eulalia Valldosera. *Ekintza fotonikoa II*. Nafarroako museoa, Iruña.
Solasaldi performatiboaren xehetasunak. *Ekintza fotonikoa II* © Eulalia Valldosera, Iruña, VEGAP, 2024.

Más que
nada en el mundo, quiero volar...
dejemos atrás la tierra y empecemos.

, tienes la libertad
de ser tú mismo, tu verdadero ser, aquí
y ahora, y no hay nada que te lo pueda
impedir.

–¿Estás diciendo que puedo volar?
–Digo que eres libre.
...

Sobre intentos y fracasos

Atravesar el umbral requiere a veces un tiempo largo y otras veces solo un instante. En su exposición titulada *Arqueología de un nacimiento*, **Alberto Odériz** (Pamplona, 1983) quiso detenerse en lo pequeño, en lo que cabe en la mano de una niña y desaparece a medida que va creciendo. En el Pabellón de Mixtos de la Ciudadela de Pamplona, el artista fue transcribiendo los acontecimientos de la vida de su hija de cuatro años desde su nacimiento. En la palabra *souvenir* —debajo del venir— aparece la idea de capa: lo que acontece hoy solapa lo que ya ocurrió. Odériz trabajó con esta materia volátil y asumió la imposibilidad de detener el flujo del tiempo, incorporando nuevas piezas a la exposición a lo largo de siete semanas. También tuvo que lidiar con la conciliación familiar, de modo que la muestra se fue construyendo como un proceso vital que podía dar cabida a los juegos de la niña. Finalmente, Odériz usó los códigos de la arqueología para organizar el material expuesto, y contextualizó los hechos aportando datos sobre el marco socio-político, intentando con ello distanciarse del relato familiar autobiográfico y dar un valor universal a los pasos dados por la niña.

Como resultado de estas formas de proceder, entre caos y orden, el público pudo ver en la sala una colección de pequeños objetos y herramientas pertenecientes a la niña; una escultura de yeso de la tripa de la madre embarazada del hermano pequeño; una serie de dibujos procedentes del cuaderno de apuntes sobre los hallazgos de la niña y reproducidos a mano en varias paredes de la sala; dibujos y letras trazados por la niña en dos paredes; un video casero; una cronología; y una presentación pública de la primera nieve que tocó la niña, en la que participaron la alcaldesa de la ciudad y la orquesta infantil del Colegio Público Vázquez de Mella.

En la sala contigua, **Irene Zottola** (Madrid, 1986) tomó el relevo de Odériz, reflexionando sobre el proceso del crecimiento mediante la metáfora del vuelo. En la exposición titulada *Ícaro*, la fotógrafa exploró el viejo anhelo del vuelo, revisando el mito griego y observando de cerca la anatomía de las aves en este mundo paralelo al nuestro que es el mundo animal. Para ello, Zottola deconstruyó la *Gran enciclopedia ilustrada de las aves* de J. Hanzak, interviniendo tanto en el texto como en las imágenes, y de este modo invitó el público a mirar con detalle las formas de las alas, así como a leer entre líneas el texto académico, replanteando nuestra tradicional supremacía sobre el resto de los seres vivos. También Zottola otorgó un lugar relevante en la muestra a la aviadora Amelia Earheart,—la primera mujer que cruzó el Océano Atlántico en soledad—, dándole voz mediante la reescritura de algunas páginas de la novela de Richard Bach, *Juan Salvador Gaviota* y estudiando su archivo fotográfico. En dicho fondo, encontró las últimas imágenes de Earheart antes de que se subiera al avión y emprendiese una vuelta al mundo de la que nunca volvió. A través de esta heroína, *Ícara* de los tiempos modernos, Zottola quiso revelar la otra cara del vuelo, del despegue, es decir la posibilidad del fracaso, de la caída.

Si el cielo fue uno de los paisajes que compartieron las exposiciones de Alberto Odériz e Irene Zottola, las artistas que participaron en el ciclo de cine, Xabier Erkizia e Inés García, presentaron dos trabajos que en los que tocaron tierra. En su película *O gemer (El gemido)*, **abier Erkizia** (Lesaka, 1975) se propuso responder a una difícil pregunta: ¿cómo sonaban los carros de los bueyes vascos? En su intento de seguir las huellas de los carros, el artista sonoro relacionó el Brasil contemporáneo con la Roma antigua, y nos llevó de viaje al modo en que lo hacían nuestros ancestros, intentando hacer emerger del silencio el estruendo que acompañaba los carros tirados por bueyes, un sonido que permaneció durante siglos pero que ya no existe en Europa. Para ello, la proyección se acompañó con una zanfona, un instrumento de cuerda que se toca mediante la acción de una rueda. **Raúl Cantinazo** (Sevilla, 1973) fue el músico encargado de introducirnos en la intensidad de su sonido envolvente y repetitivo, como aproximación al desaparecido sonido de los carros de los bueyes vascos.

Por su parte, **Inés García** (Bilbao, 1983) presentó *Winterreise (Viaje de invierno)*, una película muda compuesta por 24 fragmentos que acompañan las 24 piezas de la obra musical para voz y piano de Franz Schubert. En esta obra, Schubert se inspiró en los 24 poemas de Wilhem Müller, protagonizados por un hombre abandonado por su amada que camina desconsolado a través de campos nevados. Para evocar los paisajes del poemario, Inés García viajó durante varios inviernos a lugares de Centroeuropa que en otro siglo visitó el pintor romántico Caspar David Friedrich para pintar sus famosos lienzos. En estas localidades, Inés García grabó sus poemas visuales, como una interpretación libre, tanto de la música como del poemario.

En cuanto a **Álvaro Caboalles** (León, 1994) y **Ana Gándara** (Salamanca, 1992) escogieron Huarte, localidad en la que se encuentra el Centro Huarte, para desarrollar un trabajo de campo que titularon *Abismo*. El propósito de este proyecto fue evocar símbolos, heroínas y rituales característicos del pueblo mediante conversaciones y mediaciones con personas de distintas generaciones residentes en la localidad. Seguramente es una tarea ardua rescatar relatos relevantes de un lugar sin formar parte del mismo, sin embargo la pareja encontró la manera de recopilar algunas señas de la identidad colectiva. A raíz de los encuentros mantenidos con la población, escogieron cuatro lugares que reúnen múltiples historias que conforman la memoria del pueblo: la Fabrica Mina (solar donde está edificado el Centro Huarte), la Fuente principal, el Molino de la presa Atondoa y las parcelas de las huertas antiguamente dedicadas al cultivo de la cebolla. En esos emplazamientos colocaron unas cartelas informativas para recordar estas historias olvidadas.

Posiblemente, en el terreno del arte, importa poco el tamaño del objeto de arte. Lo que prevale es lo que desencadena. En este sentido, Álvaro Caboalles & Ana Gándara acertaron al optar por una intervención mínima y no invasiva en el espacio público del pueblo de Huarte, que invitara a las caminantes a detenerse un instante y a fijar la vista en el entorno. Del mismo modo, al mostrar la colección de pequeños objetos de su hija, tesoros de un momento, Alberto Odériz quiso llamarnos la atención sobre lo grande que puede ser un invento minúsculo, y nos propuso observar los pequeños descubrimientos que marcan el transcurrir de nuestros días.

Saialdiei eta porrotei buruz

Atalasea zeharkatzeko, batzuetan, denbora luzea behar izaten da, eta, beste batzuetan, une bakar bat. *Jaiotza baten arkeologia* izeneko erakusketan, **Alberto Odériz**ek (Iruña, 1983) txikian gelditu nahi izan zuen, neskatila baten eskuan sartu eta hazi ahala desagertzen den horretan. Iruñeko Ziudadelako Mistoen eraikinean, artista lau urteko alaba jaio zenetik haren bizitzako gertaerak transkribatzen joan zen. Souvenir hitzak —etortzearen azpitik— geruzaren ideia agertzen da: gaur gertatzen denak gertatu zena estaltzen du. Odérizek materia lurrunkor horrekin lan egin zuen eta denboraren fluxua geldiarazteko ezintasuna onartu zuen, zazpi astez erakusketan pieza berriak sartuz. Familia eta lana uztartzeari ere aurre egin behar izan zion, eta, beraz, neskatilaren jolasei lekua eman ziezaiekeen bizi-prozesu gisa eraiki zen erakusketa. Azkenik, Odérizek arkeologiaren kodeak erabili zituen erakutsitako materiala antolatzeko, eta gertaerak testuinguruan kokatu zituen, esparru soziopolitikoari buruzko datuak emanez. Hala, familia-kontakizun autobiografikotik urruntzen saiatu eta neskatilak egindako urratsei balio unibertsala ematen ahalegindu zen.

Jarduteko modu horien ondorioz, kaosaren eta ordenaren artean, ikusleek neskatoaren objektu eta tresna txikien bilduma bat ikusi ahal izan zuten aretoan; anaia txikia tripan daraman amaren sabelaren igeltsu-eskultura bat; neskaren aurkikuntzei buruzko apunte-koadernoetako marrazkiak eta gelako hainbat paretatan eskuz erreproduzitutakoak; haurrak bi paretatan egindako marrazkiak eta letrak; etxeko bideo bat; kronologia bat; eta neskatoak lehen aldiz ukitu zuen elurraren aurkezpen publikoa, zeinetan hiriko alkateak eta Vázquez de Mella ikastetxe publikoko haurren orkestrak parte hartu baitzuten.

Ondoko aretoan **Irene Zottola**k (Madril, 1986) hartu zuen Odérizen lekukoa, haztearen prozesuari buruz hausnartuz hegaldiaren metaforaren bidez. *Ikaro* izeneko erakusketan, argazkilariak hegan egiteko aspaldiko nahia aztertu zuen: Greziako mitoa berrikusi zuen, eta hurbiletik behatu zuen hegaztien anatomia gurearekin paraleloan dagoen mundu honetan, hau da, animalien munduan. Horretarako, Zottolak J. Hanzaken *Hegaztien entziklopedia ilustratu handia* deseraiki zuen, bai testuan bai irudietan esku hartuz, eta, hartara, ikusleak hegoen formei xehetasunez begiratzera eta testu akademikoa lerroen artean irakurtzera gonbidatu zituen, gainerako izaki bizidunekiko gure nagusitasun tradizionala birplanteatuz. Zottolak ere leku garrantzitsua eman zion erakusketan Amelia Earheart hegazkinlariari —Ozeano Atlantikoa bakarrik zeharkatu zuen lehen emakumea—, eta ahotsa eman zion Richard Bachen Juan Salvador Gaviota eleberriaren orrialde batzuk berridatziz eta haren argazki-artxiboa aztertuz. Funts horretan, Amelia Earhearten azken irudiak aurkitu zituen, hegazkinera igo eta inoiz itzuli ez zen munduari itzulia ekin aurretikoak. Heroi horren bidez, aro modernoko *Ikara* horren bidez, Zottolak hegaldiaren, aireratzearen beste aldea erakutsi nahi izan zuen, hau da, porrotaren, erortzearen aukera.

Alberto Odérizek eta Irene Zottolak erakusketetan partekatu zituzten paisaietako bat zerua izan bazen, zinema-zikloan parte hartu zuten Xabier Erkizia eta Inés García artistek lurra jo zuten bi lan aurkeztu zituzten. *O gemer (Intziria)* filman, **abier Erkizia**k (Lesaka, 1975) galdera zail bati erantzun nahi izan zion: nola entzuten ziren euskal idien gurdiak? Gurdien aztarnei jarraitzeko ahaleginean, soinu-artistak Brasil garaikidea Antzinako Erromarekin lotu zuen, eta gure arbasoek egiten zuten modura eraman gintuen bidaian, idiek tiratutako gurdien burrunba isiltasunetik ateratzen saiatuz. Soinu horrek mendeetan iraun zuen, baina Europan dagoeneko ez dago. Horretarako, proiekzioarekin batera zarrabete bat egon zen, gurpil bat eraginez jotzen den harizko instrumentu bat. **Raúl Cantinazo** (Sevilla, 1973) musikaria arduratu zen soinu inguratzaile eta errepikakorraren intentsitatean murgiltzeaz, euskal idien gurdien soinu desagertura hurbiltzeko modu gisa.

Bestalde, **Inés García**k (Bilbo, 1983) *Winterreise (Neguko bidaia)* aurkeztu zuen, Franz Schuberten ahotserako eta pianorako musika-obraren 24 piezak laguntzen dituzten 24 zatiz osatutako film mutua. Lan horretarako Wilhem Müllerren 24 poemetan inspiratu zen Schubert. Maitaleak abandonatutako gizon bat da protagonista, lur elurtuetan barna atsekabetuta dabilena. Poema-bildumako paisaiak gogoratzeko, Inés Garcíak negu batzuetan Erdialdeko Europako hainbat lekutara bidaiatu zuen, beste mende batean, Caspar David Friedrich margolari erromantikoak bere mihise ospetsuak margotzeko bisitatu zituen horietara. Herri horietan, Inés Garcíak bere poema bisualak grabatu zituen, musikaren zein poema-bildumaren interpretazio libre gisa.

Álvaro Caboallesi (León, 1994) eta **Ana Gándara**ri (Salamanca, 1992) dagokienez, Uharte Zentroa dagoen Uharte aukeratu zuten *Amildegia* izeneko landa-lana egiteko. Proiektu horren helburua izan zen herriaren ikur, heroi eta erritual bereizgarriak gogora ekartzea, herrian bizi diren hainbat belaunalditako pertsonekin elkarrizketak eta bitartekaritzak eginez. Segur aski, lan neketsua da leku bateko kontakizun garrantzitsuak berreskuratzea bertakoa izan gabe, baina bikoteak nortasun kolektiboaren ezaugarri batzuk biltzeko modua aurkitu zuen. Biztanleekin izandako topaketen ondorioz, herriaren oroimena osatzen duten istorio ugari biltzen dituzten lau leku aukeratu zituzten: Mina lantegia (Uharte Zentroa dagoen orubea), Iturri nagusia, Atondoa presako errota eta antzina tipula lantzen zuten baratzeetako lursailak. Leku horietan informazio-kartelak jarri zituzten ahantzitako istorio horiek gogoratzeko.

Seguruenik, artearen alorrean, garrantzi gutxi du arte-objektuaren tamainak. Gailentzen dena sortzen duena da. Alde horretatik, Álvaro Caboallesek eta Ana Gándarak asmatu zuten Uharteko espazio publikoan esku-hartze minimo eta ez-inbaditzailearen alde egin zutenean, ibiltariak une batez gelditzera eta inguruan ikusmena finkatzera gonbidatuz. Era berean, bere alabaren objektu txikien bilduma erakustean, une bateko altxorrak, Alberto Odérizek gure arreta piztu nahi izan zuen asmakizun txiki-txiki bat zeinen handia izaten ahal den ohartaraziz, eta gure egunen joana markatzen duten aurkikuntza txikiak behatzea proposatu zigun.

Textos / Testuak

Alexandra Baurès

Imágenes / Irudiak

Pág. 6, 7. / 6., 7. or. **Damaris Pan.**

Pág. 21. / 21. or. **Inés García.**

Pág. 22, 23. / 22., 23. or. **La Chincheta Bruna.**

Pág. 24, 25. / 24., 25. or. **The Invisible Man.**

Resto de páginas. / Gainontzeko orriak. **Kiko Ortega Lafuente** @muan_fotografia.

Pies de fotos / Argazki oinak.

Portada; Pág. 2-3. / Azala; 2.-3. or.
Detalle *Arqueología de un nacimiento*. / Xehetasuna: *Jaiotza baten arkeologia*. **Alberto Odériz.**

Interior de portada. / Azalaren barruko aldea.
Sin necesidad de luz. / Argiaren beharrik gabe. **Anna Dot.**

Pág. 12-13. / 12.-13. or.
Inauguración Mapamundistas 2024. / 2024ko Mapamunditarrak erakusketaren inaugurazioa.
Ciudadela, Pamplona / Ziudadela, Iruña.

Pág. 26-27. / 26.-27. or.
Detalle *Icaro*. / *Ikaro*ren xehetasuna. **Irene Zottola.**

Diseño gráfico y maquetación / Diseinu grafikoa eta maketazioa

Marta E. Martín

Imprenta / Inprimategia

Espacegrafic. Navarra / Nafarroa

Deposito legal / Lege-gordailua
DL NA2008-2015/ LG NA 2008-2015

Esta publicación de MAPAMUNDISTAS 2023 ha sido impresa
sobre el papel reciclable Nautilus Super White,
con una tirada de 400 ejemplares, en mayo de 2024.

MAPAMUNDITARRAK 2023 argitalpen hau birziklatutako
Nautilus Super White paperean inprimatu da,
400 aleko tiradarekin, 2024ko maiatzean.

Esta publicación se ha podido llevar a cabo gracias al apoyo del Programa Innova.

Argitalpen hau Innova Programari esker egin ahal izan da.

Un Programa de:

La asociación cultural la caracola agradece a las artistas, a las entidades y a todas las personas que han hecho posible esta 17ª edición de MAPAMUNDISTAS.

La Caracola kultur elkarteak eskerrak ematen dizkie MAPAMUNDITARRAKen 17. edizioa ahalbidetu duten artista, erakunde eta pertsona guztiei.

Organiza / Antolatzailea:

Subvenciona / Diruz lagundua:

Con el apoyo de / Ondorek lagunduta:

Colabora / Laguntzaileak:

2023

MAPAMUNDISTAS

El umbral · Atalasea

PAMPLONA, HUARTE & VILLAVA
7 de septiembre - 29 de octubre 2023

IRUÑA, UHARTE & ATARRABIA
2023ko irailak 7 - urriak 29